

Beizaman,
Gipuzkoako bihotzean



Ingurumen Hezkuntza Programa Didaktikoa
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA



BEIZAMA

Gipuzkoako erdigunean dagoen herri txikia, nekazaria eta euskalduna da; naturarekin hartu eman estuan dagoen kokaleku ezin hobea, ikasleekin egonaldi lasai eta atsegina igarotzeko.

BEIZAMAKO ATERPETXEA INGURUMEN ZENTROA

Kooperatibako kideok gure jardunaren bidez gizarte jasangarriago baten eraikuntzan ekiteko asmoarekin honen aldeko alternatibak eskaintzen ditugu. Gure egitekoaren arloetako bat Ingurumen Hezkuntza programak burutzea da, funtsezkotzat jotzen dugulako etorkizuneko heldu izango diren Euskal Herriko DBHko ikasleei jasangarritasunaren baloreak transmititzea.

Elikadura burujabetza : Lehen Sektorea

Gaur egungo gizarte hirikoia, landa eremuei eta nekazaritzari bizkarra emanez bizi da, norbanakoon bizitzengan duen harremana ikusezina delarik. Lotura hau, elkardependentzia hau, bistaratzeari behar beharrezkotzat jotzen dugu, ezagutzen dena bakarrik zaindu daitekeelako.

Gure programen bitartez, DBHko ikasleekin, ekonomiako lan sektoreen ikasgelako lanketa osagarritzea dugu helburu, Lehen Sektoreari dagokionean; arrotzena egiten zaien sektorearen ereduak zuzenean eta bizipenen bidez ezagutaraziz.

Balore hezkuntza

Gure jardunean balore hezkuntza lantzen dugu; harreman pertsonalak landuz eta aisialdiaz gozatuz.

Otorduak

Transmititzen ditugun mezuekin koherentzia bilatuz otorduak kontsumo arduratsu eta eraldatzailearen irizpideak jarraituz prestatutatzen dira: km0, garaiko, ekologiko, artisau eta bidezko merkataritzako elikagaiak erabiliz.



PROGRAMAK ETA EKINTZAK

Goizpasa Beizaman

Goiz bateko plana: landa eremura gerturatu eta baserri bat ezagutu.

* Programan burutu daitezken ekintzak

Lehen Sektorea ezagutu

Lehen sektoreari buruzko esperientzian sakontzeko programa.

Gau bateko loaldia, otorduak eta ekintzak.

Lan Sektoreak ezagutu

Urola Erdiko eragile ekonomikoekin elkarlanean diseinatutakoa.

3 lan sektoreak lantzeko programa.

Gau bateko loaldia, otorduak eta ekintzak.

Garapen jasangarriaren ildoan, elikadura burujabetzaren erronkan heztea dugu helburu:

- Nekazaritza, lan sektore eta bizimodu bezela identifikatzea .
- Herri txiki eta baserriek gizartean duten funtzioaz jabetzea: elikagai eta lehengaien iturri, eta ondare natural eta kulturalaren zaintzaile.
- Elikadurak, landa eta hiriguneak lotzen dituen materia fluxua dela eta Kontsumo eredu ezberdinek duten eraginaz jabetzea.

EKINTZAK	DBH 1-2	DBH 3-4
Baserria: Aitzalde, tradiziozkoa eta dibertsifikatua	● *	● *
Baserria: Leunda, abelgorrien ustiatagia	● *	● *
Baserria: Aleka Bioelkartea, hazi ekologikoak	● *	● *
Baserria: Urkizahar , Txakoliña ekologikoa	● *	● *
Baserria: Arreta, gaztandegia	● *	● *
Talde-kohesio dinamikak	●	●
Kontsumo Tailerra	●	●



Beizamako herriak eta bere instalkuntzek DBHko gazteekin hiriguneetatik irten eta landa eremuaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen du.

Herri euskalduna eta lasaia da, trafiko gutxiarekin eta baliabide ugari eskeintzen ditu goiz pasa atsegina pasatzeko eguraldi on zein euritsuarekin.

Baserrietara bisitak

5 nekazal jarduera aukeran

2 taldek 2 baserri ezagutu ditzakete aldi berean.

Interesgarrien zaizkizuen baserriak aukeratu ditzakezue.
(Baserritarraren disponibilitatearen menpe egonik)

Ordutegia: 10:30-12:00

Gutxieneko taldea: 20-25 ikasle

Garraioa: Beizamako herriguneraino taldearen ardura izango da.
Baserriak oinez irisgarriak dira (herrigunetik 1,5 – 2 km); horietaraino ibilera hezitzaile baten laguntzaz egingo da.

TARIFA TALDEKO (BEZ barne)	160,00 €
----------------------------	----------

Herriko baliabideak

Estalpeko esparruak

Bazkaria eta hamaiketakoak egiteko, edota jolaserako frontoia (porteria eta saskiduna) eta elizako arkupea.

Beizamaren ahotsa, ibilbide autogidatua eta interpretatiboa

Ordu beteko iraupena du eta nekazal paisaia eta ondarearen interpretazioa lantzen du.



LEHEN SEKTOREA EZAGUTU PROGRAMA

Gau bateko egonaldiek aukera ezin hobea eskaintzen dute gelako esparrutik kanpo bestelako ezagutza praktikoak eta trebeziak lantzeko, hala nola, taldeko harremanak sendotzeko.

Programa honekin **Lehen Sektore ekonomikoan sakonduko dute ikasleek**, Beizamako baserritarren eskutik DBHko kurrikuluneko honako edukiak landuko dira:

- Nekazaritza sistema nagusiak: intentsiboa, estentsiboa, ekologikoa eta agroekologikoa.
- Nekazaritza eta paisaiaren arteko harremana, gizakia faktore eragilea.
- Jarduera tradizionalak eta teknika berriak.
- Sektorearen egungo errealitatea.
- Elikagaien jatorriaz eta kontsumo ereduez sentibilizatu, informatu eta hausnartu: kontsumo arduratsu eta eraldatzailea irizpideak.

Talde kohesioa eta baloreak landu

Eskola esparrutik kanpo egoteak talde baloreak praktikan jartzea ahalbidetzen du.

Beizaman honakoak bereziki lantzen ditugularik:

- Taldekideekiko zerbitzua eta errespetua
- Ideia aniztasunarekiko errespetua

ORDUTEGIA		8:00-9:00	Esnatu eta maletak prestatu
		9:00-9:30	Gosaria
10:00-10:30	Harrera	10:00-10:30	Denbora librea
10:30-12:30	1 Ekintza: Baserria	10:30-11:30	2Ekintza: Kontsumo Tailerra
		11:30-12:00	Hamaiketakoa
		12:00-13:00	2Ekintza: Kontsumo Tailerra
12:30-14:30	Bazkaria (etxetik ekarrita) Denbora librea	13:00-13:30	Denbora librea
		13:30-14:30	Bazkaria
14:30-16:30	Maletak eta denbora librea		
16:30-17:00	Askaria (etxekoa)		
17:00-19:00	3 Ekintza: Baserria edo Talde kohesio dinamikak		
19:00-20:30	Denbora librea		
20:30-21:30	Afaria		
21:00-23:00	Denbora librea		



TARIFAK PERTSONAKO (BEZ barne)		ZERBITZU EXTRAK	
Loaldia eta pentsio osoa	39,00 €	Lehen eguneko bazkaria	9,50 €
+ 1 Ekintza	47,50 €	Lehen eguneko askaria	2,00 €
+ 1 eta 2 Ekintza	56,00 €	Irakasleek loaldia eta pentsio osoa ordaintzen dute.	
+ 1, 2 eta 3 Ekintza	64,50 €		

AITZALDE Tradiziozkoa eta dibertsifikatua



Maritxuren eskutik, desagertzeaz dagoen baserri gestio tradizionala ezagutuko dute, Biziraupeneko ekonomiazko ereduak: Oilategia, ukuilua, belardiak, baratza, eta ogi labea (ziklo itxien sistema).
Gazteek asto gainean bueltatzea emango dute.

LEUNDA Abelgorrien ustategia



Jonen eskutik gaur egungo baserriaren teknifikazio maila ezagutuko dute, baserriaren inguruko ideia guztiz aldatuko zaizkiz.



Abeltzainak, paisaiaren zaintzaile aktiboak izanik, abeltzaintza eta paisaiaren arteko harremana lantzen da.

ALEKA BIOELKARTEA Hazi ekologikoak



Migelen eskutik, hazien ekoizpen sektorean dagoen arazoaz jabetuko gara: multinazional handien monopolio eta oztopoak. Honen aurrean euren ekimen kolektiboarekin eraikitzen duten alternatiba ezagutuko dugu.

Haziak lortzeko zikloa (landarea-fruitua-hazia) eta merkaturatzea lantzen dira



Idoiaren eskutik, Idiazabal Izendura Babesturapean kalitatezko artzai-gazta ekoizteko prozesu oso ezagutuko dute; baserriaren teknifikazio mailaz jabetuz.



Abeltzaintza eta paisaiaren arteko harremana lantzen da.

URKIZAHAR Txakoliña ekologikoa



Luisja-ren eskutik Getariako Txakoliña Izendura Babestuaren pean mahastigintza ekologikoan jarduteko apustu ausarta ezagutuko dute.



Txakoliña ekoizteko prozesu osoa ezagutuko dute eta merkaturatzea.

TAILER ETA JOLASAK

Kontsumo Tailerra



Elikadura ohiturek, kontsumismoan oinarrituta, lurraren baliabideak kontsumitzen dituzte eta hondakinak sortu. “Aztarna ekologikoaren” eta gizabanakoon erresposabilitate kontzeptuak landuko dira.
Gazteek kontsumo estrategiez hausnartuko dute .

Talde kohesio dinamikak



Taldeak egituratzen laguntzen duten jolasak eta dinamikak lantzen dira, honako baloreak landuz:
Konfiantza - Entzuketara - Elkar zaintza - Elkarlana.

BEIZAMAKO ATERPETXEA – INGURUMEN ZENTRUA



beizamabizia@gmail.com

630.181.994

www.beizamakoaterpetxea.com



Kudeaketa Iraunkorreko Sistema dugu:
gobernantza onaren, gizarte-kohesioaren
eta ingurumenarekiko errespetuaren
helburuak zehazten ditugu.



Aterpetxe Turistikoa gara Erregistro zk.BSS00019.



Familientzako eta umeentzako bereziki
prestatuta gaude.



Eikagaien kalitatea eta bertokotasuna lantzen dugu.

